

5G –MOZIOA-

5Gak, telefonia mugikorraren 5garren belaunaldiak, “gauzen interneta” ekarriko du. Eta horrekin bat helduko zaigu ustezko erronka handien aukera leihoa (gidaririk gabeko ibilgailuak, pertsonen eta gauzen etengabeko konexioa, urrutitik egindako ebakuntza kirurgikoak, Europako funtsei lotutako proiektu erraldoiak ...), hau da, hamaika zerbitzu berri. Era berean, aztertu beharreko arrisku berriak ekarriko ditu ere, ez soilik zibersegurtasun, osasun edo ingurugiro arloetan, baizik eta mundu digitalean ematen den etikan ere.

Oraindik teknologia horrek gizartearengan zer eragin izango duen ez dakigu. Hortaz, zalantzak eta galderak mahai gaineratzeko unea da: 5Ga zertarako, nola eta norentzat?

Aditu askok ohartarazi dute 5Gak azpiegitura handi asko ekarriko dituela, instalazio berriak, antenen ugaritzea... Egun, zuhurtzia falta eta kontrolrik gabeko hedapena jada martxan da eta hori ingurumenaren inguruko azterketarik egin gabe egiten ari da.

Gizartearen bizimoduak, uneoro konektatuta egoteko beharra areagotu egin du eta ildo horretan gure gailu guztiak konektatuta izatearena, alegia, 5Gak ekarriko duenaren zantzua “gauzen interneta”: mugikorra, ordenagailua, telebista, tableta... eta horrelako dispositiboak elkarren artean konektatzea.

Horregatik guztiagatik Azkoitiko Udalak jarraian datorrena adosten du:

1.-Teknlogiek eragindako arrakala anitzak gainditzeko helburuarekin, herritarrek teknologia berriak erabiltzeko duten eskubide- berdintasuna bermatua izateko konpromisoa hartzen dugu, ondorengo arloetako bermeetan oinarrituta: osasuna, eskuragarritasuna, jasangarritasuna, pribatutasuna eta erabakitze eskubidea.

2.-Azkoitiko Udalak teknologia berriak aktibatze kontratu berriak egiterakoan, kontratazio publiko sozialen irizpideak jarraituta egingo ditu.

3.-Azkoitiko Udalak ezarriko dituen teknologia berrien gaineko auditoria publikoak abiatuko ditu, besteak beste, CO2 emisioak, pribatutasuna, radiofrekuentzia elektromagnetikoen limiteak eta irisgarritasunari lotutako adierazleak kontuan hartuaz.

4.-Azkoitiko Udalak egon daitezkeen 5G teknologiaren gaineko azterketak eskuratuko ditu.

5.-Azkoitiko Udalak adierazten du bat egiten duela Europako Kontseiluaren Parlamentu Batzarraren 1815 ebazpenarekin.

6.- Azkoitiko Udalak, Gobernu Zentralari 5G segurua dela adierazten duten ikerketak eta ebidentziak eskatzen dizkio eta erabakiak edo neurriak prekauzio printzipioaren arabera har ditzala.

7.-Azkoitiko Udalak mozio honen informazioa luzatuko dio, Eusko jaurlaritza, Gobernu zentralari eta Europako Kontseiluaren Parlamentuari.

Azkoitian, 2022eko Martxoaren 16an

Urola Aktibo

EAJ/PNV

EH Bildu

Azkoitia Bai

The image shows four handwritten signatures corresponding to the political groups listed above. From left to right: a signature for Urola Aktibo, a signature for EAJ/PNV, a signature for EH Bildu, and a signature for Azkoitia Bai. The signatures are written in black ink on a white background.